

2. Segmentazioa

Merkatu masiboa

Antzerako beharrak eta arazoak dituzten kontsumitzaileen talde handia da. Bai balorezko proposamenak, bai banaketa kanalak, eta bai bezeroarekiko harremanak talde handi eta bakar batean oinarrituta daude, zeinak antzeko beharrianak eta arazoak dituen.

Gure enpresa, egunerokotasunean betaurrekoak beti erabiltzen dituzten pertsonentzat dago pentsatua, eguzkitako betaurrekoak izan ezik, hauek eguzkia dagoenean bakarrik erabiltzen direlako, eta, gehienbat udan. Ohikoa izan ez arren bezeroaren nahi hori izango balitz ez guke inongo arazorik izango hori egiteko. Begietan duten arazoek (miopia, astigmatismo, hipermetropia...) ez dute gure salmenta baldintzatzen, hau da, ez dugu kontuan hartzen duen arazo mota, kristalak garbitzeko ez delako beharrezkoa. Zorte onez, betaurrekoak erabiltzen dituzten pertsonen multzoa asko handitu da azken hamarkadan eta horrek onura asko ekarriko dizkigu. Gure eremu geografikoa kontuan hartuta, zonalde oso euritsu batean bizi garenez, gure produktuaren eskaera handia izango da, lagungarria eta erabilgarria izango delako horrelako egunetan.